2020IKIE0001

ESKORIATZAKO UDALERRIAN BIDEETAKO SASTRAKAK KENTZEKO, AREKAK GARBITZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKO PARTIKULARREN ORRIA.

1. BALDINTZA. - Kontratuaren helburua.

Baldintza agiri honetan oinarrituta egingo den kontratuak helburu izango du baldintza agiri tekniko honen I. eranskin bezala atxikitako zerrendan ageri diren Eskoriatzako bideetako sastrakak kentzea eta arekak garbitzea espedientean jasotako eta kontratu izaera izango duen dokumentazio teknikoaren arabera.
Lanak horrela banakatzen dira:

1. 30.203,00 metro linealean bideetako sastrakak kentzea baldintza agiri honetako 5. baldintzan ezarritako eta I. eranskinean jasotako irizpideen arabera.
2. 16.321,00 metro linealean bideetako sastrakak kentzea eta arekak garbitzea eta bertako belarrak batzea baldintza agiri honetako 5. baldintzan ezarritako eta I. eranskinean jasotako irizpideen arabera.

2. BALDINTZA.- Kontratua egikaritzeko baliabide pertsonalak eta materialak.

Esleipenduna derrigortuta dago zerbitzua edo prestazioa egoki eta kontratuan zehaztutako epeetan emateko beharrezko ekipoa eta baliabide lagungarriak bere kontura ekartzeko eta mantentzeko. Beraz, prestazioak egoki emateko beharrezko materiala izan beharko du uneoro esleipendunak. Esleipendunak bere kargura ekarri beharko ditu zerbitzuak emateko beharrezko diren produktuak. Produktuok indarrean dagoen arautegia bete beharko dute, kasuan kasu.
Esleipendunak behar bezala aseguratuta izan beharko ditu bere menpeko langile guztiak, eta erantzukizun zibileko aseguruak egin beharko ditu egin beharreko lanetan hirugarrenei eragin dakizkiekeen kalte-galerak estaltzeko.

3. BALDINTZA. - Egindako lana.

Lana I. eranskinean adierazitako bideetan eta areketan egin beharko da. Lana amaitutzat jo ahal izateko, elizate bakoitzeko auzo-alkateak bere eremuan egindako lanei oniritzia emateko idazki bat sinatu eta Eskoriatzako Udaleko Obrak eta Zerbitzuak departamentuan aurkeztu beharko du.

4. BALDINTZA.- Lanak egiteko datak.

Sastrakak kentzeko lanak urte bakoitzeko uztailaren 15etik 31ra bitartean egingo dira.

5. BALDINTZA. - Egin beharreko lanak.

Sastrakak kendu beharreko bidearen sekzioaren arabera, honako kasuak izan daitezke:
Lurra alde bietatik erauzita duen bidea, alde bakarretik erauzita duena eta lubetan egindako bidea.

- Lurra alde bietatik erauzita duen bidea: bide hauetan hiru aldiz pasako da makina.

- Lurra alde bakarretik erauzita duen bidea: bide hauetan hiru aldiz pasako da makina goiko aldetik, eta behin, behekotik.
- Lubetan egindako bidea: bide hauetan bi aldiz pasako da makina alde bakoitzetik.

Edozein arrazoirengatik traktorearen besoa ondo iristen ez den lekuetan (farolen bueltan, seinaletan, eserlekuetan eta abar), tresna egokiarekin kenduko dira sastrakak.
Arekak garbi gelditu behar dira, sastrakak kentzerakoan sortutako inolako hondarrik gabe eta aurrez egon zitezkeenak ere kenduta, arekek jasoko duten ura inolako trabarik gabe igaroko dela bermatuz.
Arekak garbitzetik bildutako hondakinak inguruan utziko dira, modu egokian, asko nabarmendu gabe.
Lanak egin behar direnean indarrean dagoen araudiak adierazitako seinaleak jarri beharko dira bideetan, plegu administratiboetako 27. baldintzan adierazitako hizkuntza betebeharrak kontuan hartuz.

6. BALDINTZA. - Kontratuaren iraupena.

Kontratu honek urtebeteko indarraldia izango du eta urtebeteko luzapena egin ahal izango da.

eskoriatzako udala

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARTICULARES PARA LA CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE: LIMPIEZA, DESBROCE DE CAMINOS EN EL TÉRMINO MUNICIPAL DE ESKORIATZA.

Cláusula 1ª. - Objeto del contrato.

En contrato que en base al presente pliego se realice tendrá por objeto el servicio de desbroce de caminos y limpieza de cunetas del municipio de Eskoriatza recogidos en la lista que se adjunta como Anexo 1 al presente pliego, de conformidad con la documentación técnico que figura en el expediente que tendrá carácter contractual.
Los trabajos se desglosan en:

1. 30.203, 00 ml de desbroce de camino según los criterios establecidos en la cláusula 5 del presente pliego y recogidos en el anexo I.
2. 16.321,00 ml de desbroce de camino y limpieza y retirada de hierbas en cunetas, según los criterios establecidos en la cláusula 5 del presente pliego y recogidos en el anexo I.

Cláusula 2ª.- Medios personales y materiales para la ejecución del contrato.

El adjudicatario queda obligado a aportar y mantener a su costa, para la realización del servicio o prestaciones, el equipo y medios auxiliares que sean precisos para la buena ejecución en los plazos convenidos en el contrato. Por consiguiente, en todo momento el adjudicatario deberá disponer del material necesario para la correcta prestación de los servicios. El adjudicatario debe aportar a su cargo todos los productos necesarios para la prestación de los servicios, los cuales deben cumplir con la normativa vigente en cada caso.
El adjudicatario deberá tener debidamente asegurado a todo el personal a su cargo, debiendo realizar los seguros de responsabilidad civil que cubran posibles daños a terceros en la realización de los trabajos contemplados.

Cláusula 3ª. - Trabajo realizado.

El trabajo se va a realizar en los caminos y cunetas indicados en el Anexo I. Para poder dar el trabajo por finalizado cada auzoalkate de anteiglesia ha de firmar un escrito y entregarlo en el departamento de Obras y Servicios del Ayuntamiento de Eskoriatza dando el visto bueno de los trabajos de su área.

Cláusula 4º Fechas de ejecución.

El trabajo de desbroce se realizará en el periodo transcurrido entre los días 15 y 31 de julio de cada año.

Cláusula 5º. - Trabajos a ejecutar.

Segun la sección del camino objeto de desbroce se pueden dar los siguientes casos:
Camino en desmonte, camino a media ladera y camino en terraplén.

- Camino en desmonte: en estos caminos se realizarán tres pasadas a ambos lados.
- Camino a media ladera: en estos caminos se realizarán tres pasadas por el lado superior y una por el inferior.
- Caminos en terraplén: en estos caminos se realizarán dos pasadas por cada lado.

En aquellos lugares en los que por alguna razón el brazo del tractor no llega a realizar el trabajo adecuadamente (alrededor de farolas, señales, bancos, etc) la labor de desbroce se realizará con la herramienta más adecuada para ello.
Las cunetas deberán quedar limpias tanto de los restos originados por el desbroce como de todos aquellos que pueda haber con anterioridad garantizando la recogida de las aguas que deban de fluir por las mismas.
Los residuos generados en la limpieza de cunetas, se depositarán en las inmediaciones del lugar, de forma discreta.
Durante la realización de los trabajos deberán señalizarse los caminos de acuerdo con la normativa vigente, teniendo en cuenta las obligaciones lingüísticas señaladas en la cláusula 27 de los pliegos administrativos.

Cláusula 6º. - Duración del contrato.

El plazo de vigencia del presente contrato será de 1 año. Podrá ser prorrogable de un año mas.